

**GETXOKO «ANDRÉS ISASI» MUSIKA ESKOLAN PERTSONAL LABORALA FINKOA GISA (MUSIKA IRAKASLEA) LAN EGITEKO HAUTAKETA PROZESUEI BURUZKO DEIALDIK ZUZENDUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

Guztira 5 musika-irakasle plazak deitzen dira: 2 A1 azpitaldea eta 3 C1 azpitaldeea.

Ezaugarriak dira:

- Musika irakaslea, beharrezko titulazioa: kantu goi maila. Ez nahitaezkoa den 3. Hizkuntza eskakizunarekin.
- Musika irakaslea, beharrezko titulazioa: Musika goi maila. Bestelako betebeharrak: musikoterapia habilitazioa. Nahitaezkoa den 3. Hizkuntza eskakizunarekin.
- Musika irakaslea, beharrezko titulazioa: batxileratoa. Bestelako betebeharrak: bestelako tendentziak: gitarra-jazz habilitazioa. Ez nahitaezkoa den 3. Hizkuntza eskakizunarekin.
- Musika irakaslea, beharrezko titulazioa: batxileratoa. Bestelako betebeharrak: trikitixa, perkusio tradizionala, panderoa, txalaparta eta danborra habilitazioa. Ez nahitaezkoa den 3. Hizkuntza eskakizunarekin.
- Musika irakaslea, beharrezko titulazioa: batxileratoa. Bestelako betebeharrak: alboka, panderoa, eta perkusio tradizionala habilitazioa. Nahitaezkoa den 3. Hizkuntza eskakizunarekin, 2022ko abenduko 22rako.

Lanpostuak betetzeko modua: Lehiaketa-oposizioa.

Txanda: EPOE 4. X.I.: 5 lanpostu.

A) OPOSIZIO FASEA

Hiru proba izango ditu (A, B eta C), izaera baztertzailerakoak.

A proba. – Euskara ariketa

Plazek nahitaezko hizkuntza eskakizunarekin: Eskaturiko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea nahitaez bete beharreko baldintza da, hala izendatuta duelako; hortaz, atal honetarako balioztatpena Gai edo Ez Gai izango da.

Euskara ezagupenak egiaztatzeko proba batzuk egingo dira. Hala ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin baino lehen, epaimahaiak epe bat jarriko du, lanpostuak eskatzen duen hizkuntza eskakizuna egiazta dezaketen izangaiek horren egiaztagiria aurkez dezaten, eta, hartara, ez dute euskara azterketarik egin behar izango. Epe hori merezimenduak aurkezteko epearekin bat izango da.

Hizkuntza eskakizunak honako agiri hauekin egiazta daitezke:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen agiria, 3. hizkuntz eskakizuna edo gogokoren bat egiaztatu izana erakusten duena, edo horien baliozkeren bat.

Eskuratu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna ziurtagiri bidez egiaztatu ezean, prozeduraren beste fase bat gehiago izango da hori egiaztatzeko egin beharreko probarena.

Epaimahaiak erabakiko du oposizio aldiko zein unetan egin ariketa hori.

B proba. – Proba teorikoa

Proba teorikoa bi zatitan egituratuta dago (B.1 eta B.2). Epaimahaiak probaren azken nota globala soilik argitaratuko du.

Probaren bidez, hautagai bakoitzaren trebetasun pedagogikoa eta irakaskuntzarako beharrezko teknikak menperatzen dituen egiaztatu nahi da. Hautagaiak programazio didaktiko bat aurkeztu eta defendatu eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu behar du.

B.1) Programazio didaktikoa aurkeztu eta defendatzea

Programazio didaktikoan lortu nahi den lanpostuko espezialitateari aipamen egingo zaio, eta horretan helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, metodologia eta gaitasunak eskuratzeari egindako ekarpena zehaztu behar dira.



Programazio hori Musika Eskolako 2. Mailako ikasturte bati dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika Eskolen sorrera eta funtzionamendua arautzen duen 289/92 Dekretuaren arabera.

Programazio didaktikoak 50 folioko luzera izango du gehienez, DIN-A4 formatuan, aurpegi bakarretik idatzita, espazio bikoitzarekin, eta «arial» 12 puntuko letrarekin. 9 unitate didaktiko izan behar ditu gutxienez, eta unitate horiek zenbatuta egon behar dira. Ez da eranskinik egongo.

Programazio didaktikoaren azala, aurkibidea eta erreferentzia bibliografikoak ez dira 50 folioen barruan zenbatuko, eta ez dituzte adierazitako betekizunak bete behar izango.

Programazio didaktikoa epaimahaiari emango zaio, I. eranskin honetako B2 atalean ezarritako moduan, eta epaimahaiaren aurrean defendatuko da hautagaiak horretarako deitzen dutenean.

Hautagaiak programazio didaktikoaren aurkezpenaren eta defentsa publikoaren aurretik ez du prestatzeko denbora zehatzik izango. Horretarako ezin izango du material lagungarrikerik erabili, eta hautagaiak emandako programazio didaktikoaren kopia berdin-berdina soilik izango du.

Ariketa honetan gehienez 35 puntu lortu ahal izango dira.

B.2.) Unitate didaktiko bat prestatzea, azaltzea, eta hala denean, defendatzea

Unitate didaktiko bat prestatzea eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzea hautagai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotuta egongo da. Pertsona bakoitzak bere programaziotik ausaz ateratako hiru unitate didaktikoren artean bat hautatuko du.

Aipatu unitate didaktikoa egitean, horren bidez lortu nahi diren ikaskuntza helburuak, edukiak, ikasgelan planteatutako diren irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak, ebaluazio prozedurak eta gaitasunen garapena zehaztu behar dira.

Unitate didaktikoaren azalpen publikorako, hautagaiak berrogeita bost minutu izango ditu prestatzeko eta egokitzea jotzen duen eta berak ekarri duen material lagungarria erabili ahal izango du, baita folio bat baino luzeagoa izango ez den gidioa ere; gidoi hori epaimahaiari emango dio azalpena amaitu eta gero.

I. Eranskin honetako B.3 atalera bildutako baldintzak betetzen dituztenek B.2) ariketaren ordean epaimahaiak ondore horretarako egiten duen txostena eska dezakete. Epaimahaiak aholkuak jaso ditzake, seigarren oinarri orokorrean jasotako moduan.

Txosten hori hautatzeak ez du esan nahi probaren B.1) atala egin behar ez denik, hau da, programazio didaktikoa epaimahaiari eman behar zaio zehaztutako epean eta epaimahaiaren aurrean defendatu behar da hautagai bakoitzari defentsarako deia egiten zaionean.

B.1) eta B.2) atalak egiteko modua: hautagai bakoitzak, azalpenaren hasieran, aurretik emandako programazio didaktikoa aurkeztu eta ahoz defendatuko du. Azalpena gehienez hogeita hamar minutukoa izango da. Jarraian, gehienez hogeita hamar minututan, unitate didaktikoaren azalpena egingo du. Azalpenak amaitu ondoren, epaimahaiak galderak edo jardunak planteatu diezazkioke azalpenaren edukari buruz, baina eztabaida horrek ezin du hamabost minutu baino gehiago iraun. Guztira, pertsona bakoitzak ordu bete izango du gehienez jardun horiek guztiak egiteko.

Ariketa horretan gehienez 15 puntu lor daitezke.

Proba teorikoak izaera baztertzailerak izango du. Proba gainditzeko, nahitaezkoa izango da gutxienez 28 puntu lortzea, betiere, 1. atalean gutxienez 20 puntu lortu direnean eta 2. atalean gutxienez 8 puntu.

C proba

Lan hau interpretatzea:

- Musika irakaslearen lanpostua (trikitixa, perkusio tradizionala, pandero eta txalaparta habilitazioa): A. Gozategiko «Fandango Norki», J. Tapiako «Arin Arin Cajun», K. Junkerako «Kalejira Mugarik Gabe», edo beste batzuk estilozko eta zailtasunezko parekoak.



- Musika irakaslearen lanpostua (alboka, pandero eta perkusio tradizioanala habilitazioa): Txilibrineko «Jota De Txilibrin» , Leon Bilbaoko «Porrusalda, 1» Mikel Laboako «Martxa baten lehen notak», edo beste batzuk estilozko eta zailtasunezko parekoak.
- Musika irakaslearen lanpostua (tendencia desberdinen habilitazioa-gitarra-jazz): epaimahaiak proposatutako akorde-gurpil baten gaineko inprobisazioa, analisisa eta bere aplikazio pedagogikoa. Hautagaiak 90 minutu izango ditu proposatutako proba prestatzeko, eta epaimahaiaren aurrean defendatu beharko du, gehienez 30 minutuz.
- Musika irakaslearen lanpostua (Kantuko goi mailako titulazioa): J. S. Bachen Magnificaten «Deposuit potentes» aria, Johan KJGeorg Jacobiren «An Chloë», F. Schuberten «Heimliches Lieben, op. 106 1. Zk. D 922, edo beste batzuk estilozko eta zailtasunezko parekoak.
- Proba praktikoa Musika irakaslearen lanposturako (musikoterapiako): epaimahaiak proposatutako musika pieza baten analisisa eta horren aplikazio pedagogikoa. Hautagaiak 90 minutu izango ditu proposatutako analisisa prestatzeko, eta epaimahaiaren aurrean defendatu beharko du, gehienez 30 minutuz.

Proba praktikoa izaera baztertzailerak izango du eta gehienez 20 puntu lortu daitezke. Gutxienez 12 puntu lortu behar dira gainditzeko.

B) LEHIAKETA FASEA

Lehiaketa fasearen baremoak

- a) Lan esperientzia: gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.
 - Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskolan lanpostuaren berezko funtzioak betetzen egindako ikasturte oso bakoitzeko: 2 puntu.
Ikasturtea osoa ez denean, 0,2 puntu lortuko dira lan egindako hilabete oso bakoitzeko.
 - Musika Eskola Publiko batean ikasturte oso bakoitzeko honako lanpostu honetan:
 - Musika irakaslea; derrigoprezko titulazioa: kantu goi maila: puntu 0,5.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; goi mailako titulazioa: Bestelako betebeharrak: musikoterapia habilitazioa: puntu 0,5.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak: bestelako tendentziak: gitarra-jazz habilitazioa: puntu 0,5.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak gutxienez: trikitixa habilitazioa: puntu 0,5. Derrigorrezkoa izango da behintzat lanaldiko %50 trikitixa eskolak eman izana.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak gutxienez: alboka eta pandero habilitazioa: puntu 0,5. Derrigorrezkoa izango da behintzat lanaldiko %50 alboka eta pandero eskolak eman izana.
- Ikasturtea osoa ez denean, 0,005 puntu lortuko dira lan egindako hilabete oso bakoitzeko.
- Musika irakaskuntzako beste zentro batzuetan lanpostuaren berezko funtzioak betetzen egindako ikasturte oso bakoitzeko: 0,5 puntu:
 - Musika irakaslea; derrigoprezko titulazioa: kantu goi maila: 0,25 puntu.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; goi mailako titulazioa: Bestelako betebeharrak: musikoterapia habilitazioa: 0,25 puntu.
 - Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak: bestelako tendentziak: gitarra-jazz habilitazioa: 0,25 puntu.



- Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak gutxienez: trikitixa habilitazioa: 0,25 puntu. Derrigorrezkoa izango da behintzat lanaldiko %50 trikitixa eskolak eman izana.
- Musika irakaslea; derrigorrezko titulazioa; batxilerato titulazioa: Bestelako betebeharrak gutxienez: alboka eta pandero habilitazioa: 0,25 puntu. Derrigorrezkoa izango da behintzat lanaldiko %50 alboka eta pandero eskolak eman izana.

Ikasturtea osoa ez denean, 0,0025 puntu lortuko dira lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

- b) Titulazio akademikoak eta onarpen profesionala: gehienez ere 3 puntu emango dira:
- Eskatutako espezializaziokoak ez diren beste titulazio profesional batzuk (erdi maila): 0,5 puntu.
 - Espezializaziokoak ez diren goragoko beste titulazio batzuk: 1 puntu.
 - Ezin izango dira pilatu lanbide puntuazioa eta goi mailako puntuazioa espezialitate berekoak direnean.
 - Lanpostuarekin lotutako beste meritu akademiko batzuk, gehienez 0,5 puntu.
 - Argitalpenak; Egileak gehienez: puntu 1.
 - Argitalpenak: Interpretak Gehienez: 0,5 puntu.
- c) Prestakuntza: 10 ordu bakoitzeko, deialdi honetako 3. ataleko 7. oinarrian bildutakoaren arabera, 0,125 puntu. Gehienez 3 puntu.
- d) Euskara: Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea nahitaezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza baremo honen arabera baloratuko da:
- Administrazio 1. HE edo baliokidea: 4 puntu.
 - Administrazio 2. HE edo baliokidea: 4 puntu.
 - Administrazio 3. HE edo baliokidea: 6 puntu.
 - Administrazio 4. HE edo baliokidea: 6 puntu.

«Andrés Isasi» Musika Eskolan emandako zerbitzuak alegatu egin behar dira, baina ez dituzte interesatuek frogatu behar. Administrazio honek zenbatuko ditu ofizioz.

Beste Musika Eskola Publiko batzuetan emandako zerbitzuak administrazio bakoitzak horretarako duen eredura frogatuko dira. Betiere, lan egindako denboraldiak banakatu behar dira, aldi horietako lanbide espezializazioa eta lanaldiaren ehunekoa zehaztuz.

Titulazioak kreditatzeko, tituluaren fotokopia edo titulu hori jasotzeko eskubideak ordaindu izatearen ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu behar da.

C) EGUTEGIA

Onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratu eta hogeitau egun igaro ondoren, hautagaiak bost egun baliodun izango dituzte hurrengoak emateko:

- Dokumentazio guztia (jatorrizkoa edo fotokopia egiaztatua) I. eta II. eranskinetan aipatutako merituak baloratzeko, 7.3. oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.
- Programazio didaktikoa, B.1 atalean esaten den moduan: jatorrizkoa eta lau kopia.

D) EPAIMAHAI KALIFIKATZEA

1. *Izendapena*

Organo eskudunak hautaketa probak kalifikatu behar dituzten epaimahaiko kideak izendatuko ditu, lehendakaria, kideak eta idazkaria.

Izendapenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera.



2. Osaera

Kide hauek osatuko dute:

— Lehendakaria:

- Musika Eskolako zuzendaria edo berak eskuordetutako pertsona.

— Kideak:

- Musika Eskolako plan pedagogikoaren arduraduna edo berak eskuordetutako pertsona.
- Langileen ordezkari bat edo berak eskuordetutako pertsona.
- Musika Eskolako enplegatu publikoa.

— Idazkaria:

- Musika Eskolako idazkaria edo berak eskuordetutako pertsona.

E) AZTERKETA-ESKUBIDEEN TASA

— A) tadean sartzeko: 2,80 euro.

— C) taldean sartzeko: 1,70 euro.

Getxon, 2019ko maiatzaren 10ean.—Getxoko Andrés Isasi Musika Eskolako Tokiko Erakunde Autonomoaren Presidentea, Koldo Iturbe Mendilibar



ERANSKINA

OPOSIZIO-FASEKO PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK**A zatia. — Programazio didaktikoa: idatzizko lana eta ahozko defentsa**

Hauek hartuko dira kontuan programazio didaktikoa baloratzeko:

- Deialdiaren betekizunei egokitzea:
 - Ikasturte bat garatzea, espezialitate horretako irakasleek emateko eskumena duten hezkuntzamaile edo -etapa bateko ikasturte bat.
 - Kontuan hartzea deialdi honetako VI. eranskinean adierazi den araudiak araututako indarreko curriculumak.
 - Hautatu den ikasturteko curriculum-elementu guztiak sartzea programazioan.
 - Deialdian ezarri diren betekizun formalak eta eduki-betekizunak betetzea.
 - Deialdian adierazi diren luzerari eta aurkezpenari buruzko betekizunak betetzea.
- Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa:
 - Idazketa eta ahozko aurkezpena argiak, ordenatuak eta arinak izatea. Azalpenaren antolamendu egituratua.
 - Hiztegia zuzen eta zehatz erabiltzea.
 - Sintesirako gaitasuna eta ezarritako denborari egokitzea.
 - Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, atal gakoak azpimarratzea, ondorioak.
- Egitura eta edukia:
 - Sarreran, lege-arloko justifikazioa egin eta testuinguruan jartzea.
 - Araudian azaltzen diren programazio didaktikoko elementu guztiak garatzea. Programazioko elementuen arteko koherentzia.
 - Ikaskuntza-helburuak teknikoki ondo formulatuta egotea eta koherenteak izatea. Curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehaztu behar dituzte, eta behar bezala egokituta egon ikasturtearen, ikasleen ezaugarri eta garapen-mailaren eta hezkuntza-testuinguru zehatzaren arabera.
 - Edukien hautapen eta sekuentziazioa egokiak izatea proposatutako helburuak eta hezkuntzatestuinguru zehatza kontuan hartuta, eta irizpide epistemologikoei eta funtzionalei erantzutea. Edukien sekuentzia argia, espezialitatearen curriculum-proiektuak ezartzen dituen konpetentziak eskuratu ahal izateko.
 - Metodologia: Ikuspegi didaktikoa(k) zehaztea. Estrategiak, teknikak, metodoak, etab. zehaztea. Dagokion ikasturteari doitzea eta egokia izatea ikasturte horretarako. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Konpetentzien garapena bultzatzea. Diziiplina anitz lantzea. Egoera-arazoen edo erronken proposamena.
 - Ikaskuntza- eta irakaskuntza-jardueren proposamena bat etortzea planteatutako helburuekin eta erabilitako metodologiarekin. Zabalatzeko eta indartzeko jarduerak.
 - Ebaluazio-irizpideak eta kalifikaziorako adierazle eta irizpideak mailaren arabera egokituta: egokitzapen legala eta didaktikoa. Ikasleen aniztasuna aurreikustea.
 - Ikasleen ebaluazio jarraiturako eta segimendurako prozesu eta tresnak bat etortzea ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin. Errekuperatzeko eta sarkontzeko mekanismoak aztertzea.
 - Kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien konpetentzia-atalekin lotutako etapako konpetentziak (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak) edo amaierako gaitasunak eskuratzen laguntzea.
 - Tenporalizazioa.



- Aniztasunari arreta eskaintzea:
 - Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztu eta egokitzea, inklusibotasunaren printzipioa betez. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. Indartzeko eta sakontzeko planak.

B zatia.— Unitate didaktikoa: ahozko azalpena

Hauek hartuko dira kontuan unitate didaktikoa baloratzeko:

- Deialdiaren betekizunei egokitzea:
 - Izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotuta ala espezialitateko gai-zerrenda ofizialean oinarrituta sortuta. Izangaiak aukeratuko du.
 - Deialdian ezarri diren betekizunak betetzea.
- Aurkezpena: komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia didaktikoa:
 - Azalpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua. Komunikazioegoeraren eta hitzaldiaren helburuaren arabera egokitzea erregistroa.
 - Hiztegia zuzen eta zehatz erabiltzea.
 - Sintesirako gaitasuna eta ezarritako denborari egokitzea.
 - Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, atal gakoak azpimarratzea, ondorioak.
- Unitate didaktikoaren ezaugarriak, egitura eta edukia:
 - Unitate didaktikoa koherentea izatea aurkeztu den programazioarekin, curriculum ofizialean ezarritakoarekin, ikastetxeko proiektuekin eta hezkuntzaren kompetentzien arabera ikuspegiarekin.
 - Unitate didaktikoa behar bezala testuinguruan jartzea, ikasleen ezaugarriak eta errealtatea kontuan hartuta. Irakaskuntzen eta ikasleen berariazko ezaugarriari erantzutea. Etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzei egokitzea.
 - Araudian azaltzen diren elementu guztiak garatzea. Unitate didaktikoko elementuen arteko koherentzia.
 - Helburuek eta ebaluazio-irizpideek behar bezala adieraztea zer lortu behar den unitate didaktikoa garatzeko ezarritako denboran.
 - Ikaskuntza-helburuak egokitzea ikasturteari, ikasleen ezaugarri eta garapen-mailari eta irakaskuntza-testuinguru zehatzari. Teknikoki ondo formulatuta egotea. Koherenteak izatea programazioan bildutakoekin eta unitate didaktikoko gainerako elementuekin. Curriculum ofizialeko helburu orokorrak zehaztea. Adierazi diren ebaluazio-irizpideen eta adierazlearen bitartez egiaztatuta ahal izatea horiek lortu diren.
 - Edukiak bat etortzea proposatutako helburuekin, metodologiarekin, ikaskuntza-irakaskuntzako jarduerekin, eta prozedura, ebaluazio-irizpide eta adierazleekin, eta behar bezala erantzutea irizpide epistemologikoei eta funtzionalei. Hezkuntza-testuinguru zehatzari egokitzea.
 - Garatu behar diren kompetentzia edo amaierako gaitasunak azaltzea.
 - Metodologia eta ikasgelaren edo bestelako ikaskuntza-espazioen antolaketa. Ikuspegi didaktikoa(k) zehaztea. Estrategiak, teknikak edo metodoak, etab. zehaztea. Dagokion ikasturteari doitzea eta egokia izatea ikasturte horretarako. Kompetentziak eskuratzen nola laguntzen duen zehaztea. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Diziplina anitz lantzea.
 - Unitatea garatzeko erabilitako baliabide didaktikoak.
 - Ikaskuntza eta irakaskuntzako jardueren proposamen errealista eta koherentea, benetako egoerari, curriculum ofizialari eta indarrean diren printzipio metodologikoei egokituta. Egoeraarazoak izatea. Jarduerak antolatuak eta



egituratuak ikaskuntza-eskuratze, -orokortze eta transferentzia errazten duen sekuentzia baten bidez. Jarduerak bat etortzea planteatutako helburuekin eta erabilitako metodologiarekin, oinarriko konpetentzien garapena sustatzeko, berdinaren arteko interakzioa bultzatzeko, aniztasunari arreta eskaintzeko, tenporalizazio egokia azaltzeko eta baliabide ezberdinen erabilera aurreikusteko. Askotarikoak eta motibatzaileak, ondo sekuentziatutakoak, eta kontuan hartzen dutenak ikasgai bakoitzean erabili ohi den material didaktikoen erabilera.

- Ikasleen ebaluazio- eta balorazio-jarduerak, baita errekuaratzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere.
 - Ebaluazio-irizpideak eta kalifikaziorako adierazle eta irizpideak mailaren arabera egokituta: egokitzapen legala eta didaktikoa. Bat etorri behar dute ikasleen aniztasunarekin.
 - Ikasleen ebaluazio jarraiturako eta segimendurako prozesu eta tresnak bat etortzea ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin. Errekuperatzeko eta sakontzeko mekanismoak aztertzea.
 - Kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien konpetentzia-atalekin lotutako etapako konpetentziak (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak) edo amaierako gaitasunak eskuratzen laguntzea.
 - Prozeduren errealismoa, zehaztasuna eta egokitzapen praktikoa, eta ikasleen ikaskuntza eta irakasle-praktika bera ebaluatzeko irizpide eta adierazleak.
- Aniztasunari arreta eskaintzea:
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztu eta egokitzea, inklusibotasunaren printzipioa betez. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. Indartzeko eta sakontzeko planak.
- Debatea epaimahaiarekin:
- Epaimahaiak egindako galderaren/galderen erantzunak zehatzak eta zuzenak izatea.
 - Beste argudio batzuk ematea, ahozko aurkezpenean, programazio didaktikoan edo ariketa praktikokoan azalduko argudioen osagarri edo zabalgarri.
 - Gaitasun pedagogikoa. Aditua izatea irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren teknikekin.
 - Ziurtasuna eta heldutasun pedagogikoa agertzea egiten dituen proposamenetan.
 - Adierazpen egokia. Erregistro egokia erabiltzea komunikazio-egoeraren arabera.